

Ekainaren 2an
JAUNAREN IGOKUNDEA

Gizarte komunikabideen Mundu Jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunaren Igokundea ospatzen dugu gaur. Gaurkoa dugu Pazkoko beste gertaera nagusia: Jesus Aitarengana goratua ikusten dugu, aintzatsu eta garaile. Kristorengan gertatua gertatzen zaigu: geure pozetan eta minetan altxatuak, piztuak, suspertuak gertatzen gara.

Egun honetan Gizarte komunikabideen Mundu Jardunaldia ere ospatzen da. Otoitzean gogoan izan ditzagun komunikabide munduan lan egiten duten guztiak, egiaren aitorle izan daitezen; eta, bereziki, komunikabide kristauetan dabiltzanek, Ebanjelioa hots egin dezatela, Elizaren batasuna jorratuz.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat: ikus liburuxka honen 64. orrialdean.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

R/. Amen.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. R/. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
zure Seme Jesu Kristoren zerura igotzea
garaipen gertatu da guretzat,
eta Haren gorputzeko garenok badugu itxaropen,
gure buru denak iritsi duen bizia iritsiko dugula guk ere;
iguzu, misterio honek pozez eta esker onez bete gaitzala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesusengan, Jainkoaren gubanako asmoa eta Jainkoa bera ikusten dugu. “Zuekin izango naiz beti”, gurekin da beti eta itxaropenez bizitzen erakusten digu.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 1, 1-11*)

Apostoluen Eginetatik

Teofilo maite: Nire lehenengo liburuan idatzi nuen, Jesusek hasieratik egin eta erakutsi zuen guztia, Espiritu Santuak eraginda aukeratutako apostoluei aginduak eman ondoren, zeruetara igo zen


arte. Jesus, bere nekaldiaren ondoren, agertu zitzaizen bere apostoluei, bizirik zegoela argi erakutsiz; eta, berrogei egunez azaltzen zitzauela, Jaungoikoaren erreinuaz hitz egin zien.

Berarekin jaten ari ziren batean, esan zien: «Ez zaitez teler atera Jerusalemetik. Zaudete han, Aitak hitzeman eta zuek Niri entzundako agintzariaren zain. Joanek urez bataiatu zuen; zuek, ordea, Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak, hemendik egun gutxi barru».

Bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain eraikiko al duzu berritik Israelgo erreinua?» Eta Jesusek: «Ez dagokizue zuei, Aitak bere esku dauzkan uneak eta garaiak jakitea. Espiritu Santua etorriko zaizuenean, hartuko duzue indar nire aitorle izateko, Jerusalem, Judea guztian, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, igo egin zen, haiek begira zeudela; eta hodei batek gorde zuen begien aurretik. Zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizon aurkeztu zitzaizkien, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor, zerura begira? Zuek utzi eta zerura igo den Jesus hori berriz etorriko da, joaten ikusi duzuen bezala».

Erantzun-salmoa (Sal 46, 2-3. 6-7. 8-9)



Goi-goiko Jauna, izan ere, izugarri,
lurbira osoan errege handi. R/.

Oihu alaien artean igo da Jainkoa,
turuta-soinuz, Jauna.

Eresi Jainkoari, eresi,
eresi gure erregeri, eresi. R/.

Jainkoa baita lurbira osoan errege,
egiozue jator goratzarre.

Jainkoa errege da atzerrietan,
eseria dago Jainkoa bere aulki santuan. R/.


Bigarren irakurgaia (Ef 1, 17-23)

San Apostoluak Efesoarrei

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela jakinduriazko eta goi argizko espiritua, Bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezazuen, nolakoa den Haren deiaren itxaropena, nolakoak Haren aintzaren aberastasunak, Berak santuei oinordekotzan emanak; nolakoa Haren ahalmenaren handia, sinesten dugunontzat. Ahalmen eta indar guzti hori Kristorengan agertu du, Berau hilen artetik biztu eraztean eta zeruan bere eskuin aldean eseraraztean: agintaritzat, nagusitzat, ahalmen eta jauntasun guztien gainera, eta nahiz oraingo gizaldian, nahiz gerokoan, aipa daitezkeen izen guztien gainera eseraraztean.

«Gauza guztiak oinpean jarri zizkion», eta Bera, guztien gainera, buru ezarri dio Elizari. Eliza, berriz, Haren gorputza da, guztietan guztia betetzen duenaren betea.

Aleluia (Mt 28, 19a-20b)





Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik
 -dio Jaunak-;
 Ni zuekin nauzue egunero,
 munduaren azken egunera arte. R/.

Ebanjelioa (Mk 16, 15-20)

Homiliarako argibideak

Itzuliko da, joaten ikusi duzuen bezala

Errefuxiatuen arazoak erakutsi du Europako agintariak nahiago dutela ezjakinarena egin. Beste aldera begiratzen dute, beste herrialdeak kargu egin daitezten saiatur. Hauxe da zuriz jantzitako gizonak apostoluei egindako gaitzespena: **Zertan zaudete hor zerura begira?** (Eg 1, 1-11). Ez da “zerura begira egotea” aurpegiatzen diena, “bertan geldirik egotea” baizik, ez mugitzea. Oinak lurrean eduki arren zerura begira dagoen ibiltaria da fededuna. Bere existentziaren dimentsio bertikalak eta horizontalak markatzen du horren bizitza.

Fededuna ezin da historian egiten den bere dimentsio horizontalera mugatuta geratu. Jainkoaren antzera sortua, **Kristo berpiztuan** eta Aitaren eskuin aldean eserita bakarrik lortzen du **errealizazio bete**a. Jesusekin, **bere helmugara** iritsi da gizateria, Jainkoaren lorian sartzera, Jainkoaren bizitzan bertan parte hartzera. Itxaropen horretara deituak gaude gu ere, eta historiaren amaieran helduko da, Nazaretoko Jesusen abenturan aurreratu bezala. Gizakiak gizakia gainditzen du zinez. Gizakia izan da eta da Jainkoaren maitasunaren xede, eta Jesusek mundu osora Berri Ona zabaltzera bidalitako Elizaren kezken xede izaten jarraitzen du. Eliza da

Jesusek abian jartzean emandako bedeinkazioaren eramaile. Gizateria osoaren oparotasunaren eta salbazioaren promesa den bedeinkazioarena.

Egia da iraganean dimentsio bertikala, gizakia eternitaterantz gidatzen zuena, ez zela gai mundu honetako **errealitate historikoa onartzeko**. Gaur egun, kristauok bete-betean konprometitzen gara gizakiaren historiarekin, eta ez gara zerura begira besoak gurutze geratzen. Ebanjelizazio garaia da orain, mundua Jainkoaren Erregetza bihurtzeko garaia (*Lk 24, 46-53*). Mundu hau urrun dago, oraindik, Jainkoak nahi duen horretatik. Sufrimendu eta injustizia gehiago dago oraindik. Jaunak presente jarraitzen du gure munduan, gizateriaren historia guztia animatzen duen horren Espirituaren bitartez. Hark elikatzen du hainbat herri eta kulturatan ikusten dugun askatasun nahia. Helmugaranzko erromesaldian, herrien ondoan doa Eliza, eta presente egiten du salbazioa Jaunak historian egiten dituen **keinuen** bitartez.

Jaun berpiztuaren presentziaren esperientziak lurrean leial izan gaitezen egiten du, gure urratsen muga ahaztu gabe. Serio tematzen gara **gure mundua eraldatzen**, justiziazko lur berri bat bihurtzen, eta ez gara gizakiaren dimentsio bertikala galdu duen dimentsio bakarreko munduaren tentazioan erortzen. Jainkoarekiko harremanaren dimentsio bertikalari eutsita bakarrik lortzen dugu existentzian benetako sakontasuna eta errotzea. Dimentsio horizontalak jesusek zabaldutako horizonte historiko absolutuan kokatzen gaitu, Jainkoaren etorkizunean, eta geure burutik harago begiratzeraz eta gure munduaren mugak zabaltzeraz eramaten gaitua.

Mundu hau ebanjelizatzeke ardura eman digu Jaunak, bera loriatsu etorri bitartean. Baina Jauna ez dago mundu honetatik kanpo. Aitaren eskuin aldean eserita dagoen Jaun Berpiztu legez, sortutako guztiaren jauna da. Espirituaren bitartez, denean sartzen da. Berak

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Munduaren azkena arte gurekin izango dela agindu zigun Jesus Jaunak. Orain, Aitari zuzenduko diogun Esker Otoitzean bat egin dezagun gure erdian dagoen Jesus Jaunarekin.

II. Eukaristi Otoitza erabiltzean «Gogoia izan, Jauna» berezia

Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zeure Eliza: gaur, hemen bildurik, Kristo zeru-lurretako Jaun ezarria izan zeneko Igokunde-egun zorionsua ospatzen ari den Eliza; eramazu maitasun osora I. Aita Santuarekin, I. gure artzainarekin...

III. Eukaristi Otoitza erabiltzean «Entzun bihotz onez» berezia

Entzun, bihotz onez, zure aurrera deitu duzun familia honen otoitzak. Kristo zeru-lurretako Jaun ezarri zenueneko Igokunde-egun zorionsua ospatzen dugun honetan. Aita guztiz ona, ekarri Zuregana mundu zabalean banaturik dabiltzan zure seme-alabak.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
lur honetan bertan ematen dizkiguzu zeruko ondasunak;
egizu, geure indar guztiz ahalegin gaitzezela
Kristorekin bizi izaten,
Berarengan eman diguzunez gero
zure jainkotasunean Zeurekin bat egitea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinka zaitzabela Jainko ahalguztidunak
Jesus zerura, zuei lekua prestatzera,
igo zen egun honetan. R/. Amen.**

**Piztu ondoren ikasleei agertu zitzaien Jesu Kristo Jauna
mundua epaitzera etorriko denean
epaile errukitsu ager dakizuela. R/. Amen.**

**Jesu Kristo Aitaren ondoan jarririk dagoela sinesten duzue;
pozik senti dezazuela
zeuekin ere badagoela azken egunera arte,
Berak agindu zuenez. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzabela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

**Zoazte Jaunaren bakean.
R/. Eskerrak Jainkoari.**